

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA

## Aitzina

**G**ure buruak beti zerbaiten kontra hazten omen ditugu, Euskal Herrian beste nonahi baino pixka bat gehiago. Berriz ere, iragan otsailaren 3an, Baionako unibertsitateren burutu ziren Frantziako Konstituzioa eta Herri Hizkuntzei buruzko jardunaldi-tan hori zitzaigun agertu hizkuntz eskubi-deen eta legeztatapenaren karietara.

Mahaira deitutakoen curriculumak ikusiz, argi zitekeen ez zela esperantza haztekorik, ez zela aterabiderik kausituko. Kurios eta inozente, sistemaren zenbait arraildura baliagarri agertuko zitzaizkigulakoan nengoen halere. Mundu arrotza deskubritu nuen: legediarena, legegile, zuzentzaile eta interpretatzaileena, hortik beretik gure hizkuntzen alde nolakoak behar litezkeen aurtiki.

Legeak zurrinak dira, berez, idatziak eta onartuak izaterakoan, irakurriak eta beteak izaterakoan; bitxiki, eskubideen traba ekar dezakete gisa berean. Alta, legerik gabe, euskararen aukerak, den mendreenak ere, borondate onaren menpekoak dira, debekatuak ez eta haizu direnen artean.

Iragan astean, hementxe David Anautek zioen: “Maiz gertatzen zaigula ideia baten aldeko izatea eta haren defentsan (...) nondik jo ez dakigula gelditzea”. Horrela mindurik egon



JAKES LARRE

zen zenbait minutuz euskalgintza. Idatzitako legeak konstituzioa erasotzen duten berukatuko zaizkigu. Konstituzioa aldatzea ezinezkoa da. Gure eskubideak bidezkoak ez direla ezin sinestarazi: a + b frogatu ziguten ezinezkoak direla. Unibertsoa ez da iduriz aski zabala, bere horretan leku bat izan dezagun.

Dena dela, martxoaren 31n hitzordua dugu Deiadar kari karrika betetzeko, hizkuntzen ezagupenaren eta eskubideen alde. Gure baitan eramanki ditugun nahikeria eta esperantza guztien lemaz jantzi mobilizazioa da, besterik gabe: gure aldarrikapenen entzunarazteko parada, mobilizazio zabala, lema bakarraren inguruan, Ipar Euskal Herritik hara Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituen defendatzaile guztiak partekatua. Burujabe izan gabe, lorpenak, zor zaizkigunak, oraino epe luze eta lan handikoak izanen dira.

Aurtengo Deiadarrak, usaian bezala, esperantza handia pizten dit eta duela gutxi entzun nituenek ez dute sentimendu hori kamustu. Euskalgintzak ez baitu erresilientzia falta, nehoiz bezain gogotsu bilduko gara euskaraz bizi nahia entzunarazteko, bide batzuk neketuegiak direla ulerturik, beste batzuk atzeman daitezkeela kontentzurik. ■



«  
Aurtengo Deiadarrak,  
usaian bezala, esperantza  
handia pizten dit eta duela  
gutxi entzun nituenek ez  
dute sentimendu hori  
kamustu  
»

## TXANDAN

Andoni Mujika



Duela zenbait hilabete *Ibilalditik Urratsera* idatzi nuen hemen; ikastolen zentzuaz niharduen. Ordukoak indartsu baieztatzen

nator. Ea zazpi argudio garbi zerrendatzen ditudan. Bat. Euskal Herriak gizarte ekimen autoeratu-tik eraiki duen erreferentziatzeko hezkuntza esperientzia da Ikastola, mundu zabaletik behatua eta miretsia. Bi. Materialgintzaren ekoizpena eta etengabeko berrikuntza: beste zenbait hezkuntza eragilek ere erabiltzen dute eta Euskal Herri kontzeptua mimo handiz islaturik geratzen da. Hiru. Euskal Curriculum. Lau. Elkartasun Kutxa. Araututa daude ikastola apalenei laguntzeko

### Denok ala inor ez

mekanismoak eta fondoak. Bost. Euskal Herria subjektutzat, osotasunean hartzen duen erakundea da, “kooperatiba europar” formulapean, bakarra esango nuke. Sei. Bere

etorkizuna erabakitzeko subiranotasun maila altua du. Zazpi. Bere etekinak (ez dago, definizioz) hezkuntza proiektura bideratzen dira osotasunean, edota taldearekin dituen konpromisoak betetzera (elkartasuna). Baina tira, oraingoan kasu zehatza daukagu begien aurrean: Lodosako Ibaialde Ikastola. Euskarak Lodosako Ikastola behar du. Ez dezatela administrazioetako txandakako burokratek gure etxea enkantean jarri. ■

